

Antonio Barandiaran Aldasoro

*Beasain, Gipuzkoa
(1936-2014)*

Aurkibidea

Biografia



Beasainmendiko Abarizketabekoa baserrian jaioa 1936an. Elkarrizketa bere anaia Inazioarekin (1931) batera egin zitzaion. Beasaingo hizkera aztertzeko oso hiltun lagungarriak izan ziren biak. Azalpen zehatzak eman zituzten baserriko lanen, ohituren eta hiztegiaren gainean.

Zintak

BEA-052

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-03-03

- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Badihardugu Euskara Elkartea

BEA-053

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-03-03
- **Iraupena:** 12 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Beasainmendi auzoa eta ingurua

- **Erref:** BEA-052/003
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:04:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Beasainmendi auzoa nolakoa zen; baserritik ikusten diren herriak, auzoak. Baso ingurua asko aldatu da; lehenago gaztainadi asko zeuden, orain pinudiak dira guztiak. Gaztainak herrira eramaten zituzten saltzera. Neurriak: anega; lakaria.

2. Garai bateko basoa

- **Erref:** BEA-052/004
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:04:15. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Basoa nolakoa zen: gaztainadiak, eta abar. Intxaurra, lizarra. Lizarrak zomorroak uxatzen ditu. Arantzazun ere lizar asko.

3. Garo-sailak

- **Erref:** BEA-052/005
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:08:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Basoaz gain, belardi ugari egoten ziren. Etxe inguruan soroak. Garotan non

egiten zuten. Garo-sailen garrantzia. Ataunen herri-sailak errentan hartzen ziren. Aitonak aitzurrarekin txilarra jotzen zuen garoa ugariago etor zedin.

4. Garia: nola hartzen zuten, gari-motak...

- **Erref:** BEA-052/006
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:11:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Garoa nola mozten zuten. Beraiek segarekin mozten zuten, baina aurrekoek igitaia erabiltzen zuten. Garia, berriz, igitaiaarekin beraiek ere. Garia harrian nola jotzen zuten. Gerra-osteko kontuak. Gari-klase desberdinak; arto-klaseak. Taloak.

5. Eskolak erdaraz; euskara debekaturik

- **Erref:** BEA-052/010
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:17:07. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

La Salle; Karmelidak; haur eskola. Euskaraz eginez gero, zigorra jartzen zuten. Inaziori fraide batek eskola partikularrak ipintzen zizkion. Umetan ere lan asko egin behar izaten zuten baserrian; Inazio sarritan azterketak egin ezinda geratzen zen. Aurreko belaunaldiak eskola gutxi hartutakoak ziren.

6. Eskolako ikasgaiak; historia sakratua, Espainiako historia...

- **Erref:** BEA-052/012
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:20:45. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

La Salle ikastetxean zer ikasten zuten: Historia Sagrada; dotrina; etab. Poliki-poliki, erdara ikasten hasi ziren. Eskolako kontuak.

7. Gramofonoa indaben truke

- **Erref:** BEA-052/015

- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:27:20. **Bukatu:** 00:28:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Gramofonoa zuten baserrian; nolakoa zen. Irratia noizko kontua den.</p>

8. Aitona-amonak eskola gabekoak; dotrina ondo ikasitakoak

- **Erref:** BEA-052/016
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:28:59. **Bukatu:** 00:32:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Amonak erdara pixka bat zekien; umeei ere zerbait ikasitakoa zen. Aitonak, berriz, tutik ere ez. Aurreko belaunaldiek eskolarik ez. Dotrina oso ongi zekiten; garizuman txartela atera behar izaten zuten.</p>

9. Amonaren ahozko transmisioa

- **Erref:** BEA-052/017
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:32:05. **Bukatu:** 00:35:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitona-amonak Ataungoak ziren jatorriz. Etxeko giroa. Amona izugarria omen zen; bertso ugari zekizkien. Ipuin zahar asko ezagutzen zituen; eta, arto-zuritzen jarduten zutenean, kontu-kontari ibiltzen zen. Urrian, arrosarioa errezatzen ematen zuten hilabete osoa.

10. Aitak luxua lehen aldiz Pasaian ikusi

- **Erref:** BEA-052/019
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:37:23. **Bukatu:** 00:39:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Amaren ahizparekin ezkonduko osaba Patxik Pasaiaiko portuan egiten zuen lan, eta Inazio eta Antonioren aitona Pasaiaira joan zen harekin.</p>

Kasualitatez turisten itsasontzi bat iritsi eta handiegia zenez ez ziren sartzen ausartu. Aitonak sekula horrelakorik ikusi gabe, erabat harrituta geratu zen bertan ikusitako luxuarekin.</p>

11. Argindarra eta ura

- **Erref:** BEA-052/020
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:39:22. **Bukatu:** 00:43:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Amonak lau behatz galdu zituen, baina behatz bakarra nahikoa zuen buruan zorriak bilatzeko. Eliza ondoko tabernatik kilometroko luzera zuen kablea jarri zuten, argindarra ematen zuena. Kalitatezko kablea zen eta arazo gutxi ematen zuen. Aitona-amonak maizter egon ziren beste etxe batean. Etxe hura salmentan jarri eta konfiantzazko norbaitek erostea nahi zutenez, aitonari hara mugitzeko eskatu zioten. Aitonak hara joatearen truke ura eramateko eskatu zuen, eta hala gertatu zen. Bertara iristen zen ur kopurua eskasa zen, abere ugari baitzegoen. Garai hartan lehorte gehiago izaten zituzten.</p>

12. Urarekin arazo ugari

- **Erref:** BEA-052/021
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:43:02. **Bukatu:** 00:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Garai hartan gehiagotan izaten zituzten lehorteak. Ez zegoen gaur beste baliabide. Etxe inguruan ez zegoen iturburu gehiegi, mendi hau oso pobrea baita, urak alde egiten dio. Erreka bat bazegoen. Egurrezko presa bat zuen, eta jendea bertan bainatzen zen, baina etxetik gertu ez zuten errekarik.

13. Baserrietara iristeko bideen eraikuntza

- **Erref:** BEA-052/022
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:49:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baserrira iristeko bideak baserritarren artean egiten ziren, euren kontura. Lagun baten bidez lurra zulatzeko dinamita erosi, eta pikatxoia, idiak eta saskiak erabilia egiten ziren, topograforik gabe.

14. 'Uztapide'ren inguruko kontuak

- **Erref:** BEA-052/026
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:54:49. **Bukatu:** 00:57:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Langileen Batailoiaren musikaren bat gogoratzen dute. Gazte-gazteak ziren orduan; eta, beraz, ez ziren bertan egon, telebistatik entzunda gogoratzen dute. Basarri eta Uztapide bertsolariei abesarazi egiten zieten, eta haien zale izanik, hortik ere gogoratzen dute musika. Uztapide ezkon-bidaian Madrilera joan zen, eta Antonio eta Inazioaren osabaren etxean eman zuen gau bat, Inazio bertan zegoela soldadutza egiten. Oso ahots ona zuen, eta bertsolari ona zen, garai hartakoa. Egungo bertsolaritza asko aldatu da. Zaila gertatzen zaie gaur egungo bertsolaritza ulertzea.</p>

15. Egungo bertsolaritza ulerkaitza

- **Erref:** BEA-052/027
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:57:42. **Bukatu:** 01:01:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bertsolaritza asko aldatu da. Hitz ulergaitzak erabiltzen dituzte orain, abokatuen estilokoak. Bertsoak ulertzeko dira haien ustez. Egun askok txalo egiten diete bertsolariei esaten dutena ulertu gabe. Hizkuntza aldatu da, baina errima egiteko modua ere bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com